


Kontsumitu eta botatzeko zeinu-ehundura inerte samarrak, arriskurik gabekoak, bizigabeak behar omen ditugu.

Eta tartean baditugu Britainia Handiko 1970 eta 1980. hamarkadako [King of the Castle](#) (1977) edo [Into the Labyrinth](#) (1980-82) bezalako harribitxi ilun, konplexu, zoragarriak, edo [Adventure Time](#) (2010) edo [Spongebob Squarepants](#) (1999-2017) bezalako erokeria tarteka surreal tarteka zentzugabe tarteka samur eta tarteka askatzaile horiek.



Edozelan ere. Umeentzako ipuinen eta ipuinok kontatzeko moduak zeharo aldatu dira ni ume nintzenetik. Geruzak kentzen aritu gatzaizkio kontakizunei. Haurrak babesteko edo, geruzak erauzten. Badaezpada.

Eta iruditzen zait pena bat dela. Batetik, gizakumeak uste dugunak baino azkarragoak direla uste dudalako, baita haurtzaroan ere, eta beraz konplexutasunaren ukazioa gizatasunaren ukazioa dela iruditzen zaidalako. Eta bestetik, haurrik izan eta haur izan gabe ere ustez haurrentzako diren testuak beti iruditu zaizkidalako interesgarriak (batzuk beste batzuk baino gehiago).

Kontua da, berriz ere, ez dudala euskal telebistarik (letra xehez) ikusten umeentzako fikzio garaikide interesgarria egiten. Txatxutasun lau bezain koloretsuetan *txipli-txapla (pun!)* dabilen ekoiztetxe-konstelazio konkretu baten esku dago haurrentzako ikus-entzunezko kontakizunen industria dirudienez, eta merkatuaren egokitze lanek antza ez dituzte permititzen orduan eta han egin zitezkeen zenbait gauza.

Eta norantza aldatu beharrean gaude, kamaradak: geruza askoko testu konplexuak josi behar genituzke gure pantailetarako, euskaraz ere. Atzo eta han beharrean hemen eta gaur, eta han-hemen etzi. Argilun berriak, estratu askoko *flysch* erako formazioak non ibili, saltoka eta oihuka, basa eta pozik, ertzekin min hartzeko arrisku eta guzti, goma-aparrezko haurtzaroekin konformatu beharrean.

Izan ere, haur, gazte, heldu eta nagusientzako telebistako fikziorik onenak oraindik idazteko eta ikusteko ditugu... hala erabakitzen badugu.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

